

GETXOKO 2016KO ERAKUSLEIHOEN XXVI. LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

GETXO ENPRESAK (Getxo Enpresa eta Merkataritza) GETXOKO 2016KO ERAKUSLEIHOEN XXVI. LEHIAKETA antolatu eta parte hartzeko deialdia egin du; ERAKUSLEIHO FISIKOA edota ERAKUSLEIHO BIRTUALA, hau da, enpresaren webgunea, duten udalerriko enpresa guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketa horretan, Getxo Enpresako kide izan edo ez, eta euren ekonomia-jardueraren sektorea gorabehera, MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUAK. Erakusleihu fisikotzat joko dira jendeak kanpotik ikus ditzakeen elementuak, produktuak erakusteko espazio batekin edo hori gabe.

HELBURUAK

Getxoko enpresen garapena sustatzea, kanpoko irudi egoki baten bidez. Getxoko enpresen sormena eta profesionaltasuna bultzatzea, enpresa horien kanpoko irudiaren inguruan egindako lanak aitortuz eta, hala badagokio, sarituz.

GAIA

Gaia librea da, edozein teknika edo estilo erabil daiteke, eta enpresak egiten duen ekonomia-jarduerarekin bat etorri behar du.

Leihaketaren edizio honetan, eta Getxon bost kontinenteetako 102 herrialdeetatik datozen pertsonak daudenez, udalerriko errealitatearen kultura-artekotasuna erakusten duten enpresek, besteak beste, erakusleihu fisikoan kultura-artekotasunari sari berezia eskuratu ahal izango dute. Esate baterako, honela erakuts dezakete: lehiaketara aurkezten duten erakusleihu fisikoan merkaturatzen diren eta oso urrunetik datozen produktuen jatorria erakutsiz, produktuak bere jatorrizko herrialdetik udalerrira arte egindako ibilbidea azalduz, herrialde horien kultura- nahiz paisaia-errealitatea adieraziz bere produktuekin, edo erakusleihoan beste kulturetako berezko apaingarriak jarriz. Leihaketako sari berezi horretan udalerrikoa den Zabalketa gobernuz kanpoko erakundeak lagunduko du.

Gaia erasokorra, baztertzaila edo iraingarria bada, edota ingurumenaren egonkortasuna kaltetzen duten osagaiak erabiltzen badira, enpresa lehiaketatik baztertuko da.

ERAKUSLEIHOEN BALORAZIOA (EPAIMAHAIK)

EPAIMAHAI PROFESIONALA

Getxo Enpresak izendatuko du eta hauek osatuko dute: erakusleihen, diseinuan, informatikan eta teknologia berrietan adituak eta GKEko ordezkariak, kultura-artekotasuna baloratuko dutenak.

Erakusleihen fisikoetan, epaimahaikideek zenbait alderdi baloratuko dute: enpresak jarduera egiteko duen sormena, diseinu estetiko eta koherentzia, egindako lanaren berrikuntza eta erakusleihen agertutako kultura-artekotasuna, betiere lehiaketako kategorian berezi honetan parte hartu nahi dutenentzat. Erakusleihen britualetan, aldiz, beste faktore batzuk baloratuko dira: edukien egituraketa, erabilgarritasuna, balio estetikoak, eraginkortasuna, nabigagarritasuna, irisgarritasuna, berrikuntza, sare sozialak badituzte eta ageri dituzten zerbitzu eta funtzionaltasunak.

Epaimahai profesionalak abenduaren 10etik 15era lehiaketara aurkezten diren erakusleihen fisikoak eta webgunekoak baloratuko ditu.

Epaimahai profesionalak egoki deritzen sariak eman gabe utz ditzake, eta epaimahaiaren epaia apelazina izango da.

HERRI-EPAIMAHAI

Herri-epaimahaia izendatu da, herritarrek enpresen kanpoko irudiari buruz duten iritzia ezagutzeko eta herritarrek lehiaketan parte hartzen duten enpresak ezagutzeko eta, hala badagokio, horietara hurbiltzeko.

Edonork har dezake parte herri-epaimahaian, lehiaketara aurkezten diren erakusleihen fisikoak zein webgunekoak www.getxoenpresa.com webguneari bidez baloratzeko. Herri-epaimahaian parte hartzen duten pertsonak bi sari hauek lor ditzakete: Kontserba-produktuen lotea eta txakolin-lotea.

Herri-epaimahaian parte hartzen duten pertsona guztien arteko ausazko zozketa baten bidez hautatuko dira saridunak. Irabazleak edo euren ordezkariak izendatzen duten pertsona saria jasotzera joan behar dira lehiaketa antolatzen duen erakundeak adierazten duen egunean eta orduan. Hori egin ezean, ezin izango dute saria jaso.

Herri-epaimahaiak abenduaren 13tik 18ra lehiaketara aurkezten diren erakusleihen fisikoak eta birtualak baloratuko ditu.

Epaimahai profesionalaren eta herri-epaimahaiaren epaia abenduaren 31 baino lehen jakinaraziko da, eta www.getxoenpresa.com webguneari argitaratuko dira epaimahai bietako irabazleak.

SARIAK

ERAKUSLEIHO FISIKOEN SAILKAPEN OROKORRA

- 1. saria:** 2 pertsonentzako zirkuitua Andaluziako hiru leku izugarrietatik eta Udalaren koadroa.
- 2. saria:** Landareen saskia eta publizitateko 18 modulu El Correo egunkarian.
- 3. saria:** Gabonetako saskia, operarako 2 sarrera eta 100 euroko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan trukatzeko.
- 4. saria:** Edertasun-produktuen saskia, 100 euroko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan trukatzeko eta espazio nabarmena Udalaren webgunean bi astez.
- 5. saria:** Gozoki-saskia eta publizitateko 12 modulu El Correo egunkarian.
- 6.saria:** Euskadiko kalitate-bereizgarria duten produktuen saskia eta espazio nabarmena Udalaren webgunean 2 astez.
- 7. saria:** Txakolin-lotea eta publizitateko 8 modulu El Correo egunkarian.
- 8. saria:** Gozoki-saskia eta haurrentzako operarako 4 sarrera.
- 9. saria:** Kontserba-produktuen lotea, eta publizitateko 10 modulu El Correo egunkarian.
- 10. saria:** Edertasun-produktuen otzara eta espazio nabarmena Udalaren webgunean astebetez.
- 11. saria:** Txakolin-lotea eta 100 euroko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan trukatzeko.
- 12. saria:** Kontserba-produktuen lotea eta espazio nabarmena Udalaren webgunean astebetez.
- 13. saria:** Gozoki-saskia.
- 14. saria:** Haur operarako 4 sarrera eta publizitateko 6 modulu El Correo egunkarian.
- 15. saria:** Kontserba-produktuen lotea.
- 16. saria:** 100 euroko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan trukatzeko eta espazio nabarmena Udalaren webgunean astebetez.
- 17. saria:** 100 euroko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan trukatzeko eta publizitateko 6 modulu El Correo egunkarian.
- 18. saria:** Espazio nabarmena Udalaren webgunean bi astez.
- 19. saria:** 200 euroko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan trukatzeko.

ERAKUSLEIHO BIRTUAL EN SAILKAPEN OROKORRA

- 1. saria:** Aholkularitza, diagnostikoa, eta hala badagokio, "Mystery Employee" irtenbidea edota hobetzeko proposamenak, operarako 2 sarrera eta Udalaren koadroa.
- 2. saria:** Gabonetako saskia eta espazio nabarmena Udalaren webgunean bi astez.
- 3. saria:** Edertasun-produktuen otzara eta publizitateko 10 modulu El Correo egunkarian.
- 4. saria:** Kontserba-produktuen lotea eta espazio nabarmena Udalaren webgunean astebetez.

5. saria: Txakolin-lotea eta 100 euroko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan trukatzeko.

6. saria: Euskadiko kalitate-bereizgarria duten produktuen saskia.

7.saria: 100 euroko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan trukatzeko eta publizitateko 6 modulu El Correo egunkarian.

8. saria: Espazio nabarmena Udalaren webgunean bi astez.

9. saria: 200 euroko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan trukatzeko.

SAILKAPEN BEREZIAK

Kultura-artekotasunaren saria erakusleiho fisikoan: Euskadiko kalitate-bereizgarria duten produktuen saskia eta publizitateko 12 modulu El Correo egunkarian.

Herri-epaimahaiaren saria erakusleiho fisikoan (*): Edertasun-produktuen otzara eta espazio nabarmena Udalaren webgunean 2 astez.

Herri-epaimahaiaren saria erakusleiho birtualean (*): Kontserba-produktuen lotea, eta publizitateko 12 modulu El Correo egunkarian.

() Herri-epaimahaiak emandako bi sariak ezin dakizkioke enpresa berari eman, leihaketako sariak enpresa ezberdinetan banatzeko. Horrenbestez, betiere aipatutako egoera suertatuko balitz, enpresari legokiokeen saria Erakusleiho Fisikoa edo Erakusleiho Birtuala sailkapenari legokiokeena izango litzateke, zeinetan boto-kopuru gehien lortu duen; bestalde, beste sailkapenean hurrengo boto-kopurua lortu duen enpresari herri-epaimahaiak emandako beste saria legokioke.*

Leihaketan parte hartzen duten enpresen artean bi sari hauek zozkatuko dira: Edertasun-produktuen saskia eta txakolin-lotea.

IZENA EMATEA ETA PARTE-HARTZEA

Getxo Enpresako kideek doan eman ahal izango dute izena lehiaketan, eta bazkide ez diren enpresek, aldiz, 27 € + % 21eko BEZa ordaindu beharko dute izena emateko.

Lehiaketan izena emateak honako hau ekarriko die enpresa parte-hartzaileei:

- Leihaketako erakusleiho fisiko ("Kultura-artekotasuna Erakusleiho Fisikoan" sarian parte hartzea hauta daiteke) eta erakusleiho birtual modalitateetan parte hartzeko aukera.
- Enpresaren publizitatea eta promozioa.
- Leihaketako sariak eskuratzeko aukera.
- Sariak banatzeko ekitaldira joan ahal izatea (gehienez ere bi pertsona enpresa bakoitzeko).

Lehiaketan izena emateko epea azaroaren 14 hasi eta abenduaren 9an amaituko da, eguerdiko 12:00ak arte.

Lehiaketan izena emateko, www.getxoenpresa.com webgunearen bidez egin daiteke, posta elektronikoz, info@getxoenpresa.com, edo Getxo Enpresaren egoitzan. Lehiaketara aurkezten diren establezimendu edo bulegoen izen komertziala, jarduera ekonomikoa, telefono zenbakia eta helbidea, edota webgunea adierazi behar dira, baita Kultura-artekotasuna Erakusleigo Fisikoan sarian parte hartu nahi badute ere.

Getxo Enpresaren kide ez diren enpresek, horrez gain, izena emateko kuota ordaindu beharko dute www.getxoenpresa.com webgunearen bidez edo Erakundetik adierazten dugun kontu korrontean.

Erakusleigo fisikoko modalitatean parte hartzen duten enpresek lehiaketara aurkeztuko duten erakusleigoaren argazki bat bidali beharko dute posta elektronikoz info@getxoenpresa.com helbidera erakusleigoa atondu bezain azkar eta abenduaren 10a baino lehen, formatu horizontalean, .jpg edo .png formatuetan eta bereizmen onarekin.

Erakusleigo fisikoa modalitatean parte hartzen duten enpresek lehiaketaren kartela jarri beharko dute ikusgai. Getxo enpresak emango die kartela, eta lehiaketan aurkezten duten erakusleigoaren kanpoko aldetik ikusteko moduan jarri beharko dute. Enpresek ez badute kartela jartzen, lehiaketatik kanpo geratuko dira. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar. Erakunde antolatzaileak oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen edozein alderdiri buruz erabakiak hartzeko eskubidea dauka.

Jakinazten dizugu, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, zure datuak Enpresa Sustapenak izeneko fitxategian sartuko ditugula, Datuak Babesteko Bulegoaren erregistroan sartua. Fitxategiaren arduraduna Getxo Enpresa da (Getxo Enpresa eta Merkataritza). Datu pertsonalen bilketa honen helburua elkartearen jarduerak kudeatzea izango da, eta Getxo Enpresak kudeatutako jardueren berri ematea, edozein bitarteko erabiliz (posta elektronikoa barne). Zuk, datu hauen jabea zaren aldetik, aipatutako fitxategian datuok sartzeko baimena eta adostasuna ematen dituzu. Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta horien aurka egiteko eskubideak dohainik erabil ditzakezu, Getxo Enpresara joz: Arene kalea, 22, 48991 Getxo, Bizkaia. Gutunean LOPD idatzi beharko duzu.